




**"Harrotasunez ikusten dugu Tabirakon zenbat neska talde dagoen"**

Saskibaloian zaletasun handia dago Durangon. Tabirakok eta Juanjo Morenok zerikusi handia izan dute horretan. Baina lorpen handiak pausorik pauso egiten dira eta ez dira berez helzen. Nesken taldeak 50 urte bete ditu eta Euskal Ligako finala baliatu zuten, joan zen zapatuan, lehenengo taldea omentzeko. Orain 50 urte ez zekiten arren, bide urratzaileak izan ziren. Rosa Trinidad eta Maribi Echaburu talde hartako kideak izan ziren. • 2-3



### Elorrion Aldapegora mendi lasterketa berria lehiatuko dute zapatuan

**Elorrio** • Erdella Mendizale Taldeak antolatu du proba, estreinakoz. 26 kilometroko ibilbidean, Elorrioko tontorrik esanguratsuenak igoko dituzte: Memaia, Besaide, Intxorta eta Udalatx. 300 bat korrikalarik parte hartuko dute. • 26



### Ezpatadantzari Eguna bihar Abadiñon

**Abadiño** • Bihar, zapatua, Durangaldeko Ezpatadantzari Eguna ospatuko dute Abadiñon. 17:30ean emango diote hasiera ospakizunari, San Trokaz plazatik hasiko den kalejiragaz. Dantzan Txanporta Kultur Etxearen aurrean egingo dute • 6

### Murgoitiok kilometro bertikalen Espainiako txapelketa irabazi du

**Mendi lasterketa** • Bigarren urtez Espainiako txapelketa baten jabe da Gontzal Murgoitio. Iaz mendi lasterketena irabazi zuen; aurtén, kilometro bertikalena. • 27





## “Sakibaloian aritzea lagun artean ondo pasatzeko modu bat zen. Ez genuen lehiakortasunez ikusten”

Tabirakoren emakumeen taldeak 50 urte egin ditu aurten. Joan zen asteburuko Euskal Ligako partiduan, hasierako talde hartako kide bik banatu zituzten sariak

**DURANGO • JOSEBA DERTEANO**

Emakume aitzindariak izan ziren Durangon. Herrian saskibaloia indarra hartzen zebilen momentu batean, Tabirakoko emakumeen lehenengo taldean parte hartu zuten. Ikastetxeetako jokalariek hautatuta, talde berriak bideari ekin zion. Bost hamarkada igaro dira harrezkero. Joan zen asteburuan Euskal Ligako finala Durangon jokatu zela baliatuta, sorrerako taldeko emakume bik parte hartu zuten sari banaketan: Rosa Trinidad Coronadok (Durango, 1957) eta Maribi Echaburu Gandiagak (Durango, 1957).

**Zelan pasatu zenuten joan zen asteburuan?**

**Rosa Trinidad:** Urte asko pasatu direnez, ez dut jende asko ezagutzen, urte hauetan guztietan ez naizelako klubera lotuta egon. Baina ilusio handia egiten dit lehen zegoen eta oraindino ere klubean dagoen jendea ikustea. Niretzat oso egun polita izan zen eta 50. urteurrena ospatzea harro egoteko modukoa da, baita talde honetan parte hartu izana ere. Gure ilobak ere hantxe zeuden. Askotan esaten diet saskibaloian jokatzeko, kirol polita dela. Durangarrak izanda, zorte handia

izan genuen kirol honetan aritu ahal izan genuelako. Beste herri batzuetan ez zegoen aukera hori. Juanjo Morenori eskerrak, taldea martxan ipini eta lehenengoak izan ginen Tabirakon. Gure aurretik, jendeak eskoletan jokatzen zuen. Eskola bakoitzean talde bat zegoen, eta gure sasoiaren Tabirakoren neska taldea sortzea erabaki zen, talde hauetako zenbait jokalaririk aukeratuta. Talde on bat sortu zen.

**Maribi Echaburu:** Nire hiru seme-alabek Tabirakon jokatu dute. Nik mantendu dut hartu-emanen taldeagaz. Urte batean, jendea behar zuten zuzendaritzan, eta 2003tik 2007ra bitartean neuk ere parte hartu nuen. Oraindino ere bazkaria egiten dugu, urtean birritan. Eta taldeko Marilo Aresti, Esther Murrúa eta hirurok astero batzen gara. **Seme-alabek zaletasunari eutsi diote.**

**M.E.:** Umeek normalean futbolekin jokatu gura izaten dute eta nik saskibaloira bideratu nituen apur bat. Ni neu oso zalea naiz.

**R.T.:** Enaitz semeak ere urte batzuetan Tabirakon jokatu zuen. Nik ere kirol honegazko zaletasuna eta maitasuna transmititu nizkion. Joan zen asteburuko ekitaldira

iloba etorri zen eta hari ere esaten diot nagusia denean saskibaloian jokatzeko.

**Durangarrak izanda, zorte handia izan genuen kirol honetan aritu ahal izan genuelako. Beste herri batzuetan ez zegoen aukera hori**

ROSA TRINIDAD

**Gure eskolan Lekeitioko moja bat zegoen. Abitua kendu, bata jantzi, eta saskibaloian jokatzen irakasten hasi zen**

MARIBI ECHABURU

**Zelan sortu zen Tabirako?**

**M.E.:** Nik Nevers ikastetxean ikasi nuen.

**R.T.:** Nik Santa Susana. Santa Susana, San Frantzisko eta Nevers batura, talde indartsua sortu zuten. Eta horrela sortu zen Tabirako. Sasoi hartan, 16 urte genituen.

**Zergaitik saskibaloia?**

**M.E.:** Sasoi hartan, aukera bakarra zen neskentzat. Nesken eta mutilen ikastetxeak zeuden orduan. Gure eskolan Lekeitioko moja bat zegoen, oraindino botoak egin barik zituena. Mariena deitzen da. Ez zen gu baino askoz zaharragoa izango. Abitua kendu, bata jantzi, eta saskibaloian jokatzen irakasten hasi zen, bera oso zalea zelako. Beragaz hartu-emanen izaten jarraitzen dugu. 78 bat urte ditu orain. Txilera joan zen eta bueltan Gasteizen egon zen. Asko bidaiatu du, mundu guztian zehar. Orain Gasteizen dago, migratzaileei eta adikzioa dutenei laguntzen.

**Saskibaloia hasieratik gustatu zitzaizuen?**

**R.T.:** Bai. Guretzat saskibaloian aritzea lagun artean ondo pasatzeko modu bat zen. Ez genuen lehiakortasunez ikusten. Baina orain kirol hau askoz ere teknikoagoa da, asko garatu da. Gaur egungo emaitzek ez dute zerikusirik gureekin. Ez geneukan gaur egun daukaten abiadura, ezta teknika ere. Baina ezin hobeto pasatzen genuen.

**M.E.:** Partidurik gehienak Bilbon izaten ziren. Partidua jokatu bai-

no 4-5 ordu lehenago geratzen ginen, eta trenean joaten ginen. Atxurira heldu eta jokatu behar zen lekura joaten ginen. Sasoi hartan, gurasoak ez ziren etorzen partiduetara.

**R.T.:** Gogoan dut partidutik bueltan Rafa Zabala entrenatzaileak tortilla pintxo bana jatera gonbidatzen gintuela, Atxuriko tren geltokiaren aurreko tabernan. Giro itzela genuen.

### Juanjo Moreno oso gizon inplikatu izan zen. Nagusien taldeetatik hasita, oinarrira arte

MARIBI ECHABURU

**R.T.:** Eragina izan zuen sasoi hartan mutilen taldeak ere bazeudela. Euren partiduak ikustera joaten ginen.

**M.E.:** Bai, domekero joaten ginen euren partiduak ikustera, merkatu plazara. Herri osoa joaten zen ikustera. Giroa egoten zen.

**Zer esaten zizueten etxean?**

**M.E.:** Askok gustatzen zitzairen. Nire ahizpa Elenak ere jokatu zuen, eta gu baino askoz hobekak ziren. Bederatzi urteko alde du. Espainiako txapelketara joan zen.

**Juanjo Morenok zein paper jokatu du Tabirakon?**

**R.T.:** Bera izan zen ekimen honen sortzailea, eta bultzatzailea izan da. Berari eskerrak egon da halako zaletasuna Durangon.

**M.E.:** Oso gizon inplikatu izan zen. Nagusien taldeetatik hasita oinarrira arte. Jesuitetara joan eta zapatu-domeketan han egoten zen, kantxan, umeek zelan jokatzeko zuten ikusten. Bere bizimodua zen. Mikel nire semeari aholkuak ematen zizkion, hobeto jokatzeko. Eta gero, Mikel Barzelonara fisioterapia ikastera joan zenean, deitu egiten zion zelan zebilen galdetzeko eta han ere talderen batean saskibaloian jokatzeko ote zebilen jakiteko.

**Zenbat denbora egin zenuten Tabirakon?**

**R.T.:** Pare bat urte.

**M.E.:** 18 urte egin genituenean utzi genuen. Gero, beste etapa bat hasi genuen.

**Zein da utzi duzuen legatua?**

**M.E.:** Harrotasunez ikusten dugu Tabirakon zenbat neska talde dagoen.

**R.T.:** Harrotasuna eta poztasuna sentitzen ditugu. Guk hasi genuen guri egokitu zitzaigulako, eta horrek jarraipena izan duela ikustea zoragarria da.

**M.E.:** Ama garen aldetik pentsatu dugu gure seme-alabentzat saskibaloia eta kirola ona izan zitezkeela gauza askotarako: lagunak egiteko, kirola egiteko, konpartitzeko, irabazten ikasteko, galtzen ikasteko... Kirolak hori guzti hori ematen du.



Tabirakoko nesken lehenengo taldea.



Tabirakoko nesken lehenengo taldea.



Erdian IDK Euskotren taldeko jokariak, aldamenetan Tabirakoko hainbat belaunalditako emakumeak dituztela, Landako kiroldegian.

**iragarki laburrak .eus**

**Hemen eta online**

Ez baduzu hanka sartu nahi, sartu zure iragarkia IragarkiLaburrak.eus atarian

# Bere 25. urteurrenean, Karrika Antzerki Taldeak jaurtiko du Txosnaguneko txupinazoa San Fausto jaietan

Oholtzetatik herriari emandako guztia "eskertzeko" modua da, txosna batzordearen esanetan. Ez da Durangoko antzerki taldeari zuzenduriko keinu bakarra izango. Mozorro Eguneko gaia 'arte eszenikoak' da aurten, euren omenez



Txosna batzordea osatzen duten kideak, martitzenean emandako prentsaurrekoan.

## DURANGO • JOSEBA DERTEANO

Durangoko San Fausto jaiak hurretaratzen ari dira eta txosna batzordeak txosnaguneko egitaraua aurkeztu du asteon. Aurten ere Landako Gunean ipiniko dituzte txosnak, iazko formatu antzerkakoan: karpabi, sukaldia eta eszenatoki handia.

Urriaren 11n, Pantxikegaz batera kalejiran jaitsiko dira txosnagunera, eta Karrika Antzerki Taldeak irakurritako pregoiagaz hasiko dituzte jaiak. "Karrikatarrak 25 urtez oholtzetatik herriari eman dioten guztia oholtza bat eta txosnagune oso bat euri eskainita eskertu gura diegu", adierazi zuten batzordekoek. Mozorro Eguneko gaia 'arte eszenikoak' izango da, euren omenez.

## Musika kontzertuak

Musikari dagokionez, estilo anitzetako taldeak ekartzen ahalegindu dira: *Insomnia*, *Dube*, *Ezta Ilen* eta *Nevadah*, urriaren 11n; *DJ maratoi herrikoia*, urriaren 12an; *Broken Brothers*, *Brass Band*, *Ibil Bedi* eta *Skabidean*, urriaren 13an; *Les Sauvage* eta *Eromena DJak*, urriaren 20an; eta *Nakar*, *TOC* eta *Biznaga*, urriaren 20an.

Eguneko ekintzak ere askotarikoak izango dira: paella txapelketa, *Gazte Eguna*, erreka jaitsiera, *Kuir Eztandak* antolatutako karropoteoa... Aurten *Elkartasun Eguna* beste itxura bat hartuko du bermuteoa antolatu dutelako urriaren 21erako, *KSKAren* musikagaz.

Azkenik, txosnagunea "espazio segurua" izan dadin eta eraso arrazista, sexista edo LGTBI+ fobikoak ekiditeko, protokolo bat martxan egongo dela aurreratu zuten. Horregaz batera, txosnagunea euskararen arnagunea izan dadin, denak euskaraz aritzera animatu zituzten.

## Erasmus+ egitasmoa Durangoko Fray Juan Zumarraga institutuan

'Let's enter digital to the future' proiektua lantzen dabilza



Joan zen egunean aurkeztu zuten proiektua, Durangoko institutuan.

## DURANGO • J.D.

Europar Batasuneko Erasmus+ programaren atarpean, eta *STEAM* izeneko hezkuntza sistema lanerako erreminta legez hartuta, Durangoko Fray Juan Zumarraga institutua *Let's enter digital to the future* proiektua lantzen dabil, Europako beste ikastetxe

batzuekin batera. Proiektuetariko bat institutuko teiltuan dagoen gune berdea da (albisteko argazkian ikusi daitekeena). Baliabide ekologikoak erabilia, askotariko lore, landare eta ortuariak hazten dituzte bertan. Ikasleek euri ura batzeko azpiegitura bat ere sortu dute.

## Andereak elkarteak sexu esplotazioaren kontrako mobilizaziora deitu du

## DURANGO • J.D.

Andereak elkarteak elkarretaratzea deitu du zapaturako, irailak 23, sexu esplotazioaren, prostituzioaren eta sexu esplotaziorako salerosketaren aurkako nazioarteko egunean. Deialdia 12:00etan da, Andra Marian. Talde durangarrak bat egingo du Euskal Herriko Feminista Abolizionisten Koordinakundea (EHFAK) osatzen duten taldeetako ekitaldiekin, zeintzuek egun eta ordu berean elkarretaratzeak egingo dituzten Euskal Herriko lau hiriburuetan. Andereak elkarteak zapaturako ekitaldira batzeko deia egin du, "emakumeen aurkako muturreko indarkeria mota horren aurka protesta egiteko".

## EH Bilduk salatu du Durangoko gobernu taldeak oraindino ez duela "proposamen seriorik" egin

Agintaldiaren lehenengo 100 egunen balorazioa egin dute

## DURANGO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

"Ohikoa da gobernu bat eratu eta 100 egun igarotakoan honen kudeaketaren gaineko balorazioa egitea. Eta EH Bildutik egiten dugun balorazioa da gobernu honek ez duela proposamen seriorik egin oraindino. Egia da Durangoko Udalak martxan jarraitu duela, baina EH Bilduk aurreko legegintzaldian hasitako proiektuei jarraipena ematera mugatu da, anbizioren barik", kritikatu dute.

Oposizioko taldekoek azaldu dutenez, proiektu horren adibide dira Alde Zaharreko zorua mutxardatzea, trenbidearen trazadura berreskuratzea, An-

dra Mariko elizpea berritzea, psikobonuen kanpaina egitea eta Madalenako plaza eta Antso Estegiz berrurbanizatzea, besteak beste. "Modu positiboan baloratzen dugu gobernuak proiektu hauekin aurrera jarraitzea, baina anbizio falta eta noraeza ikusten ditugu proiektu berriak proposatzeko orduan", jarraitu dute EH Bildukoek.

Bestalde, gobernu taldeak harturiko neurrien artean alkatearen eta alkateordearen soldataren "igoera neurribakoa" eta udal araudi organikoaren "deuseztatpena" salatu dituzte.

**anboto**

Gertuko Koop S.,  
Gizarte Ekimenekoa

Bixente Kapanaga, 9  
48215 Iurreta - Bizkaia  
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa: 946 232 523  
Publizitatea: 946 217 902

2023ko irailaren 22a  
21. urtea - 949. alea

Lege gordailua:  
BI-2268/01  
ISSN:  
1578-7028  
Tirada:  
12.000 ale



**Bizkaia**  
foru aldundia  
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua



Topaketako egitaraua joan zen astean aurkeztu zuten Durangon.

## Durangon Euskadiko nagusien lehenengo topaketa egingo dute urriaren 1ean

Landako Gunean 1.000 nagusitik gora batzea espero dute datorren urriaren 1ean

### DURANGO • JOSEBA DERTEANO

Nagusien Nazioarteko Egunean, Durangoko Landako Guneak 65 urtetik gorako Euskadiko lehenengo topaketa hartuko du urriaren 1ean. Euskofederpen dago ekimenaren atzean, Bizkaiko Nagusiak, Gipuzkoako Agijupens eta Arabako Las Cuatro Torres elkarteak biltzen dituen federazioa. Oraingoan, 700 lagunek eman dute izena, baina 1.000ko langa gaitztea espero dute. Ildo horretatik, Nagusiak elkarteak Jose Mari Macias kideak gogoratu du ez dela elkarteetako bazkideei

bakarrik zuzenduriko ekimena: "Pertsona nagusi denentzat dago zabalik, elkarte baten barruan egon zein ez".

Euskofederpeneko presidente Felix Elkoroiribek topaketa "gizarte zentroen kohesio sozialerako" tresna legez aldarrikatu zuen joan zen astean eman zuten prentsaurrekoan.

Mireia Elkoroiribe Durangoko alkateak adierazi du "ohore handia" dela topaketa hartzea eta topaketa Durangok kolektibo honen alde egiten duen "apustu irmoaren" erakusgarri dela.

Alkateak berak emango dio hasiera egunari, 11:00etan. Ondoren, nagusien elkarteetako ordezkariak hartuko dute hitza eta adinekoen eskubideak aldarrikatzen dituen manifestua irakurriko dute. Toti Martínez de Lezea idazleak ere parte hartuko du ekimenean, antolatzaileek aurreratu dutenez. Muskarik ere ez da faltako, Izar Gaztea abesbatzako eskutik. Inigo Urkullu lehendakariak emango dio amaiera topaketari, eta bertaratzaren direnzentzat luntxa egongo da.

## 60 urtetik gorakoek %50eko deskontua izaten jarraituko dute Zugazako operetan

Orain arte 1.241 adineko pertsona bertaratu dira Durangoko zinemara 26 operaz gozatzeraz

### DURANGO • J.D.

Nagusiei zinemarako eta musika-kulturarako sarbidea errazteko, eta aldi berean sektoreari laguntzeko, Durangoko Udalak Zugaza zinemagaz elkarlanean

jarraitzen du, udalerriko 60 urtetik gorako pertsonak %50eko deskontua izan dezaten Durangoko Zugaza zinemako operen prezioan. Sarreraren ohiko prezioa 9 euro da sarrera alde aurretik

lortuta, eta 11 euro egunean bertan erosiz gero; hala ere, lan-kidetzaren bitartez, 60 urtetik gorakoek 4,50 edo 5,50 euro ordaintzen dituzte.

Aldi horretan, adinekoek 26 opera gozatu ahal izan dituzte guztira, batzuk zuzenean eta beste batzuk geroratuta. Orain arte 1.241 adineko pertsona bertaratu dira. Eskaintzen artean daude Lizeotik *Tosca*, Vienako Operatik *Sevillako Bizargina*, *La Traviata* Erromako Koliseotik, *Mac Beth* Milango Scalatik edo *Rigoletto* Londreseko Royal Opera House-tik, batzuk aipatzearen. Aste honetan bertan, Londreseko Royal Opera House-tik zuzenean, *El Oro del Rin* ikuskizunagaz gozatzeko aukera izan dute.



Asteon 'El Oro del Rin' ikuskizunagaz gozatzeko aukera izan dute.



Aldaketa klimatikoaren izango dute berba Zornotzan.

## AsteKlima jardunaldietako berbaldiak Zornotzan

Eusko Jaurlaritzak Euskadi AsteKlima egitaraua antolatu du aurten eta Zornotzako Udalak bat egin du ekimenagaz

### ZORNOTZA • A.M.

Berbaldiak irailaren 25ean eta 26an izango dira, Zelaieta zentroan; lehenengoa 10etik 14 urtera arteko umeentzat izango da, 18:00etan, eta bigarrena 14 urtetik gorakoentzat, 18:30ean. Hitzaldietan, Jan-Lukas Menzel ozeanografo zornotzarrak aldatuta klimatikoaren nazioarteko panela azalduko du. "Ozeanografiak zeregin garrantzitsua du sistema globalak zelan fun-

tzionatzen duen aztertze eta ulertze", dio ozeanografoak. Menzelek poloetako ikerketa plataformako kanpaina bitan parte hartu du, Hegoafrikako Agulhas II.a ontzi izotz-hauslean. Ikerketa kanpaina zelan prestatzen den azalduko du, eta baita ere bertako egunerokoa zelakoa den, sistema globalak zelan funtzionatzen duen eta norbanakoaren jardunak zelan eragiten duen.

**EROSI IURRETAN ETA BUSTI HERRIAREN ALDE!**

**EROSKETEKIN, ATERKIAK OPARI**

Informazio gehiago  
www.dendakbai.eus www.iurreta.eus

Dendak Bai  
Iurreta Euzko Udalak

## Abadiñon Durangaldeko Ezpatadantzari Eguna ospatuko dute zapatu honetan, irailak 23

San Trokaz plazan hasiko dute kalejira, 17:30ean. Dantzan Txanporta Kultur Etxearen aurrean egingo dute

### ABADIÑO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Eskualdeko dantzari batzuek, Gerediaga Elkartearen laguntzagaz, Durangaldeko Ezpatadantzari Eguna berreskuratu dute. "Zenbait taldetako kideak batu ginen eta ikusi genuen Dantzari Dantzaren egoera ez zela onena. Gerediagari laguntza eskatzea erabaki genuen eta zapatu honetan Ezpatadantzari Eguna ospatuko dugu Abadiñon", azaldu du Unai Esturo Iurretako Dantza Taldeko kideak.

Ezpatadantzari Eguneako anfritioia Abadiñoko Talde Batuak t

dea izango da. Taldeak 50 urte bete zituen 2020an, baina pandemiak bete-betean harrapatu zituen eta ezin izan zuten ospatu. Beraz, zapatuko taldearen ospakizunaren zati bat izango da: 50 +3

Abadiñoko Talde Batuak bi taldez gainera, eskualdeko beste zortzi taldek ere parte hartuko dute: Berrizko Iremiñek eta San Lorentzok, Durangoko Kriskitinek, Tronperriek eta Txoritxu Alaik, Iurretako dantzari taldeak, Mallabiko Gazte Alaik eta Zornotzako Udabarrik.

Eguneko egitarauari dagokionez, 17:30ean emango diote hasiera ospakizunari. San Trokaz plazatik kalejira irten eta probaleku aurreko parkinerako bidea egingo dute dantzariak. Dantzari Dantzako 9 dantzak Txanporta Kultur Etxearen aurrean egingo dituzte. Amaieran, erregelak egingo dituzte. Egunari amaiera emateko, 20:30etan poteo musikatu egingo da tabernarik taberna Oxabi taldeagaz.

Dantzariak, Gerediaga Elkarteko kideak eta Mikel Urrutia Abadiñoko alkateak eskualde osoko herritarrei bertaratzeko gonbidapena egin diete.



Eskualdeko hainbat taldetako dantzariak, Gerediagako kideak eta Abadiñoko alkatea astelohenerako prentsaurrekoan.

## Gobernu taldeko ordezkariak herri bilera egin dute atxondarrekin

Herriko arazo, kezka eta proposamenak aztertu dituzte



Martitzen arratsaldean egindako herri bilerako argazkia.

### ATXONDO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Gobernu taldeko ordezkariak herri bilera egin dute asteen Apatamonasterioko auzotarrekin. Dozenaka lagun batu ziren martitzen arratsaldean egindako herri bileran. Batzarraren helburua

herriko arazo, kezka eta proposamenak aztertzea zen.

Asteen Apatamonasterion egindako herri bilera ez da gobernu taldeak egindako lehenengoa izan. Uztailean Arrazolako eta Axpeko auzotarrekin batu ziren.

## Elorriarrek 10 proiektu dituzte aukeragai aurrekontu parte hartzaileetan

### ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Elorrioren herritarrek egindako ekarpenak bozkatzeko momentua heldu da. Lehenengo fasean aurkezturiko 135 proposamenak aztertu eta baloratu ostean, aurrekontu parte hartzaileen bigarren fasea martxan da. Orain, herritarrek honako proiektu hauen artean aukeratu beharko dute: Anduetxeta kaleko espaloiak eta aparkalekuak hobetzea, San Agustinen espaloia konpontzea, eta natura, jolas eta kirol elementuak Ganondo parkean instalatzea, besteak beste.

Aukera bi daude bozketan parte hartzeko: aurrez aurreko edo Internetez. Urriaren 8a baino lehenago eman behar da botoa.

## Montorran 140 etxebizitza egiteko planak aurrera jarraitzen du Elorrioren

Joan zen asteko osoko bilkuran behin betiko onartu zuten proiektua, EH Bilduren eta EAJren aldeko botoekin

### ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Joan zen barikuan egindako osoko bilkuran, Montorra eremuko plan berezia behin betiko onartu zuten, EH Bilduren eta EAJren aldeko botoekin eta Elorrioko Podemosen abstentzioagaz. Hori horrela, 140 etxebizitza eraikitzeke proiektuak aurrera jarraitzen du. 140 etxebizitza horietatik erdiak, 70, babes ofizialekoak dira, 40 sozialak eta 30 tasatuak.

Elorrioko Udaletik jakinarazi dutenez, honek "sakon" eragingo du, herriaren fisionomia aldatuko du eta. Ganondo parkeetik Argiñeta etorbiderainoko eremuan hainbat proiektu egin-

go dute: etxebizitzak eraikitzea, Ganondo parkea Montorran jarraitzea, ibaia udaletxearen parean azalartzea eta Alde Zaharra eta Ganondo zubi baten bitartez lotzea, besteak beste. Horrez gainera, Elorrioko mugikortasuna ere hobetuko dela azaldu dute.

"Herriagaz landu den proiektua da Montorra. 2018an hasi ginen proiektuagaz, eta bizi-lagunekin hainbat bilera egin ostean adostasunak lortu dira", azaldu du María Herrero Hiri-gintzako zinegotziak. Gaineratu du oraindino bidea dagoela egiteko eta plana epe ertain-luzera gauzatuko dela.



Elorrioko osoko bilkurako argazkia.

## Bizkaiko Foru Aldundiak ezetz esandio Elorrioren eguneko zentroa egiteari



Julene Lazkano alkatea eta María Herrero alkateordea, Aldundian.

### ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Elorrioren eguneko zentroaren eskaera aldarrikapen historikoa da. Azken denboretan hainbat eskari egin dute, bai herritarrek baita udalak ere. Eta azkenengoa aste honetakoak izan da. Julene Lazkano alkatea eta María Herrero zinegotziak Amaia Antxustegi Gizarte Ekintzako diputatu berriagaz bildu dira. Udaleko kideak eskaera berriro

egin eta proiektua Foru Aldundiaren 2024ko aurrekontuetan jasota geratzeko eskatu diote. Baina udaletik jakinarazi dutenez, erantzuna ezezkoa izan da. "Diputatuak ez du zerbitzu hori Elorrioren eskaintzea aurreikusten; udalerrriak ez du izango Aldundiaren finantziarioa, epe ertain-luzera, gutxienez", azaldu dute. Hala ere, lanean jarraituko dutela gaineratu dute.



# **Okm:** *batzen gaituen distantzia*

---

**Egin zaitez anbotokide!**

**anboto**  
**kide**

# Joseba Sarrionandiak eta Ines Osinagak 'Katuen Kontuak' plazaratuko dute Otxandioko Mekoletan

Berbak eta kanta uztartzen dituen emanaldia zapatu honetan izango da, 19:30ean, Arkotxe kultur elkartean



Ines Osinaga eta Joseba Sarrionandia martxoan Azpeitiko Soreasu antzokian egindako emanaldian. **KULTURAZ AZPEITIKO KULTUR KOOPERATIBA**

## OTXANDIO • J.D.

Joseba Sarrionandia idazle eta poeta iurretarra eta Ines Osinaga musikari arrasatearra Otxandioko Mekoleta auzoan izango dira zapatu honetan, biek elkarregaz landu duten 'Katuen kontuak' ekimenagaz. Emanaldia 19:30ean hasiko da, Arkotxe kultur elkartean.

'Katuen kontuak' emanaldiak musika eta literatura uztartzen ditu. Dozena bat kanta eta kanta bakoitzaren sarrera literario bat, horixe da ikuskizunaren muina. "Bidaia luzeko kanta dira, edo, hobeto esanda, kanta dira bidaia", sortzaileen esanetan. Izan ere, Habanan sorturiko testuek Atlantikoa zeharkatu zuten eta Euskal Herrira heldu ziren. Bestela esanda, hitzak Joseba Sarrionandiak sortu zituen Kuban, orain ia hamar urte. Gose taldeko Ines Osinagak musika ipini zien hitzei, eta 'Gosariak' proiektua gauzatu zuen. Orain, letra horien jatorria eta zergaitia azalduko dituzte emanaldian Osinagaren musikagaz lagunduta.

## Otxandioko ikastaroetan izena ematako aukera hilaren 25era arte

### OTXANDIO • J.D.

Otxandion Mainondoko gimnasioa kirol ikastaroetan izena emateko epea zabalik dago irailaren 25era bitartean. Urtero lez, eskaintza zabalik dago aukeran: pilates, zumba, punp, txirrribike, mantentze-soinketa... Gazteei begirako ikastaroak ere badaude, hala nola gazte zumba eta gazte power.

**Pilates, punp, zumba, txirrribike, mantentze-soinketa... Eskaintza zabalik dago aurten ere**

Interesa dutenek Otxandioko udaletxera joanda edo bertara deituta egin dezakete izena ematea. Ikastaroen inguruko zalantza guztiak argitzeko, informazio puntua ipiniko dute. Postu hori gaur egongo da plazan, 19:30etik 20:30era, eta herritarrak bertara joan daitezke duda guztiak argitzera.

## Erdi Aroko elikagaien gaineko berbaldia eta elikagaiok dastatzeko aukera Izurtzan

Europako Ondare Jardunaldien barruko berbaldia da eta Juan Manuel González Cembellin historialariak emango du

### IZURTZA • J.D.

Erdi Aroko elikagaien buruz gehiago jakin gura duenak Izurtzan du horretarako aukera. Urriaren 29an, 10:30etik 12:30era, Ondarearen Europako Jardunaldien barruko ekimen bat antolatu dute Gerediaga Elkartek eta Izurtza-

ko Udalak, Etxaburuko dorrean. Berbaldia Juan Manuel González Cembellin historialariak emango du, gaztelaniaz. Eta gaian bete-betean sartzeko, orduko jateko batzuk dastatuko dituzte. Izen ematea [ondareabizkaia.eus](http://ondareabizkaia.eus) helbidean egin daiteke.



Mañariko Hontza Museoan bertan izango da bisitaldia, 11:00etatik 13:00etara.

## Sinesmenei buruz gehiago jakiteko aukera Mañarian

Hontza Museoak sinesmenen inguruko bisita gidatua antolatu du urriaren 14rako, Ondare Jardunaldien barruan

### MAÑARIA • J.D.

Ondarearen Europako Jardunaldien barruan, Hontza Museoak Euskal Herriko sinesmenen inguruan sakontzeko bisitaldia antolatu du urriaren 14rako, Hontza Museoan bertan. "Euskal Herrian behinolako ohiturekin loturiko animaliei eta landareei buruzko sinesmen ugari dago, baina, eza-

gutzen ditugu kulturaren zati diren tradizioak? Museoa bisitatzean, arbasoen ohitura batzuk ezagutuko ditugu", aurreratu dute antolatzaileek. Bisitaldia ordu bikoia izango da: 11:00etatik 13:00etara, euskaraz. Izen-ematea [info@hontzamusoea.eus](mailto:info@hontzamusoea.eus) helbide elektronikoaren bitartez egin daiteke edo 946 216 555 telefonora deituta.

## Martxan da padel txapelketan parte hartzeko izen ematea, irailaren 28ra arte

### MALLABIA • J.D.

Mallabiko padel klubak liga bat antolatu du eta dagoeneko martxan da bertan parte hartzeko izen ematea, irailaren 28ra bitartean. Hiru kategoria daude aukeran: emakumezkoak, gizonenezkoak eta mistoa. Liga urrian hasi eta uztailean amaituko da.

**Hiru kategoria daude eta hasieran ligaxka fomatuan jokatuko dute, igoerekin eta jaitsierekin**

Hainbat maila egongo da eta hile birotu batzuk mailaz igo edo jaitsi egingo dira. Azken fasea kanporaketa sistemagaz jokatuko dute. Izen ematea 20 euro da pertsonako.

Bestalde, padel eskola laster hasiko da, urriaren. Nagusiek nahiz umeek parte hartu dezakete.



Izurtzako Etxaburuko dorrean izango da ekimena.



# UDA KO 9. ARGAZKI LEHIAKETA

Eman zure botoa  
udako argazki  
lehiaketan

**Bozkatu**

*www.anboto.org* webgunean

**Irailaren 22ra arte**

ANTOLATZAILEA



LAGUNTZAILEAK





**anboto**  
kide

Anbotokideen  
txokoa

## IRAILEKO ZOZKETAK



**Andereño**  
txotxongilo  
ikuskizunerako  
sarrera bikoitza.  
Urriaren 6an,  
Zornotza aretoan.



**Xiberu tabernan** bi  
pertonentzako  
gosaria. Zornotza.



**Gauargi tabernan** bi  
pertonentzako  
gosaria. Iurreta.

\*Zozketa hauetan parte hartzeko eman  
izena gure webgunean.

## IRABAZLEAK

'Migratzaileak' ikuskizuna San Agustinen: Borja Relación Arana  
'Anbotoko Mari!' ikuskizuna Arriolan: Asier De la Torre Abaunza  
Jatordua Uxarten: Mikel Alzibar Alberdi

**Okm:**  
batzen gaituen  
distantzia

Egin zaitetz Anbotokide  
eta parte hartu gure  
zozketetan!



Amaia Egidazu.

## Berrizko Kontulekuak irailaren 27an bueltatuko da, Amaia Egidazugaz

Berrizko Udalak haurren artean irakurketa sustatzeko ipini zuen martxan Kontulekuak

**BERRIZ • A. M.**

Berrizko Udalak haurren irakurketa sustatzeko asmoagaz ipini zuen martxan Kontulekuak programa. Ikasturte berria asteagaz batera bueltatuko da Kontulekuak, eta izen ematea zabalik dago jada. Amaia Egidazu ilustratzaile berriztarrak dinamizatuko ditu saioak; Dorotea liburuaren egilea da, besteak beste. Talde bitan banatuta (3-5 urte eta 6-8 urte), kontakizunekin gozatu eta irakurtzeko ohiturak sustatzeko gune bihurtuko dute Kultur etxeko Sarrimendi aretoa. Guraso eta umeen arteko lotura afektiboak garatzeko ere

baliagarria da, Berrizko Udalak ohar batean azaldukoaren arabera, izan ere, umeei eurentzat erreferentea den heldu batez joan beharko dute saioetara. Urtea amaitu bitartean, lau saio egingo dituzte: irailaren 27an, urriaren 25ean, azaroaren 29an eta abenduaren 20an. Izena emateko, [liburutegi@berriz.eus](mailto:liburutegi@berriz.eus) helbidera idatzi behar da.

**Alfabetatze ikastaroa**

Bestalde, Berrizko Udalak emakume migratzaileei zuzenduriko alfabetatze eta ahalduzko ikastaroen bigarren edizioa ipini du

martxan. Astelehenean hasi zen, hilak 18, eta ekainaren 24ra arte iraungo du; astean lau orduko saioak izango dira, astelehen eta eguztaren, 10:00-12:00 bitartean. Urte osoan zehar egongo da izena emateko aukera, eskaintzen diren plaza kopurua bete bitartean. Ekimen hau Udaleko Berdintasun arloko ahalduzko feministako ikastaroen barruan sartzen da. Besteak beste, gizarte bazterketa jasateko arriskua duten emakume migratzaileei Berrizen integratzen laguntzeko eta horiek lan merkatuak prestatzeko helburua du ikastaroak.

## Goitibera Txikia egingo dute Zaldibarren, hirugarrenez, Aldatsa elkartearen eskutik

Domeka arratsaldean izango da ekimena, 16:00etan; ume eta gazteentzat antolatuta du Aldatsak



50 bat lagun batu ziren izazko edizioan. **RAFA IRAETA**

**ZALDIBAR • A. M.**

Zaldibartar talde batek Aldatsa elkarte sortu zuen 2021ean, inertzia kirolak ezagutarazi eta goitibeherkiko zaletasuna sustatzeko asmoagaz. Orduetik, hainbat jaitsiera antolatu dute, eta aurtengo, hirugarrenez, Goitibera Txikia egingo dute, euren pasioa umeei eta gazteei transmititzeko asmoz. 16:00etatik 19:00etara bitartean, hamar *sputnik* egongo dira erabilgarri (uretanozko gailu hauek patinen gurpilak dituzte), ekimenerako bereziki prestaturiko zirkuituan. "Jaitsierak ez du batere arriskurik. Oso zirkuitu dibertigarria da, 100 bat metrokoa, eta bertan partaideek hainbat oztopo eta bihurturik gaitu beharko dute helmugara heldu aurretik", azaldu du Eneko Iraeta Aldatsako kidea. "Goitibera Txikia ume eta gazteei zuzenduta dago batez ere, baina helduek ere izango dute tartetxo bat goitibeheran jaisteko; sarritan gurasoak dira motibatuenak", gehitu du. Aurreko edizioetan 50 bat lagun batu ditu ekimenak.

## Mendi martxa jendetsua aurreikusten dute Iurretan

Jaietan motorrak berotzen hasi dira. Asteburuan musika emanaldiak eta ikuskizunak ere izango dira



Iazko mendi martxako argazkia.

**IURRETA • JONE GUENETXEA**

Iurretako jaien hasiera ofiziala datorren egunean izango den arren, hainbat ekitaldi aurreikusi dute asteburu honetarako. Gaur, Pirritxek, Porrotxek eta Marimotsek urteroko hitzordua izango dute herriko umeekin.

Bihar goizerako, jaietako ekitaldirik jendetsuenetariko bat antolatu du Zaldai Mendi Taldeak: urteroko mendi martxa. Aurten 1.000 lagun inguru batzea aurreikusten dute antolatzaileek. Ibilbide bi izango dira: luzeak 24,5 kilometro izango ditu, eta laburrak 14,2. Eguraldiak lagunduz

gero, aukera parebakoa izango da eskualdeko txokoak ezagutzeko. Zapatua mendian hasi eta rock kontzertuagaz amaitzeko aukera emango dute Iurretan. Añube, Hope eta Dupla taldeek zuzenean joko dute.

Asteburuan erritmoa hartu eta gero, datorren egunean emango diete hasiera jaiari, Montoitik. Arratsaldean Doniel Atxa jasoko dute plazan. Hurrengo astebururako ere ekitaldi sorta prestatu dute: dantzariak San Migel egunean, Mozorro Eguna irailaren 30ean, eta jaien amaierak urriaren 1ean.

## Enrike Mendiguren eta Laia txakurra garaile Euskal Herriko ardi-txakur txapelketan, Garain

Durangaldeko ordezkari bakarrak, Kepa Ardanza abadiñarrak, laugarren postua eskuratu zuen Urbi txakurragaz



Garaiko ardi-txakur txapelketako sari ematea. EHATE

**GARAI • JONE GUENETXEA**

Garaik Euskal Herriko ardi-txakurren txapelketa hartu zuen joan zen zapatuan. Arabako, Bizkaiko, Gipuzkoako eta Nafarroako hamahiru artzain lehiatuko ziren Aiertza auzoan, bakoitza bere txakurragaz. 344 puntu lortuta, Enrike Mendiguren (Orozko) nagusitu zen txapelketan, Laia txakurragaz. Angel Varona geratu zen bigarren, Jai txakurragaz, eta Fidel Alonso hirugarren, Lis txakurragaz. Kepa Ardanza abadiñarrak laugarren postua lortu zuen, Urbi txakurragaz.

## Tokiko merkataritza eta ostalaritza bultzatzeko kanpaina hasi dute Iurretan

100 euroko edo gehiagoko gastua egiten duten herritarrei aterki bana oparituko diete

**IURRETA • AITZIBER BASAURI**

Iurretako Udalak kanpaina berri bat ipini du martxan herriko dendetan eta ostalaritza establezimenduetan kontsumitzea bultzatzeko: *Iurretan erosi eta busti herriaren alde!* Urriaren 15era arte 100 euroko edo gehiagoko gastua egiten duten herritarrei aterki bana oparituko diete. Erosketa tiket desberdinak batu ahal izango dira eta Herritarren Arreta Zerbitzuan aurkeztu beharko dira aterkia lortzeko.



Iñaki Totorikaguena alkatea eta Alex Palacios Dendak Baiko kidea kanpaina aurkezten.

# Ostalaritza gida

**Abadiño**

**ABARKETERUENA**  
Iturritxo, 6 - Txanporta plaza, ABADIÑO  
Tel.: 944 657 790

Eguneko menuak eta asteburuetakoko menu bereziak. Goizetik pintxoak. Giro oso ona.

**Iurreta**

**GAUARGI**  
Dantzari 4 behea, IURRETA  
Tel.: 944 356 674

Eramateko tortilla bereziak. Barikuetan mollete eta errazioak. Domeketan rabak eta askotariko errazioak.

**Zornotza**

**XIBERU**  
Zezilia Gallartzagoitia, 9  
Tel.: 946181758

Gosari bereziak egunero, pintxopotea ostegunero eta afariak astebururo. Giro alaia eta atsegina. Ongi etorri Xiberura.



**DURANGO • M.Z.**

Gaurtik domekara bitartean, jaiak ospatuko dituzte Durangoko Goienkalean. Gaurko 20:00etan emango diete hasiera jaiari, txupinazoagaz eta Amabirjinari aurrekua eginda. Ondoren, Durangoko Sugarri fanfarreak poteoa girotuko du eta 21:30ean erromeria egongo da Eirband taldearen eskutik.

Bestalde, zapatuan, txorizo banaketa solidarioa egongo da Geu Beren eskutik, eta 13:00etan paella txapelketa eta dantza-bermuta Sugarri fanfarreagaz. Arratsaldean, 19:00etan, hildakoen omenezko meza egongo da Santa Anako elizan. 20:00etatik aurrera, DJ Ruben Costas eta Dreykyk girotuko dute Goienkalea.

Domekan amaituko dira jaiak. Ordurako ere egun osoko egitaraua

## Eirband musika taldea, Sugarri fanfarrea eta DJ saioak Goienkaleko jaietan

20:00etan emango diete hasiera jaiari. Egitarau zabala antolatu dute asteburu guztirako

antolatu dute: udal bandaren kontzertua, haurrentzako animazioa eta trikitilariak egongo dira, besteak beste.

Domekako ekintza asko Goienkaleko tabernetan egingo dituzte. Adibidez, jubilatuen bazkaria Txanto tabernan egingo dute, dardo txapelketa Kale Kantoin, igel txapelketa Rugbyn, mus txapelketa Arkupen eta txokolatada Anboto tabernan. 21:00etan emango diete amaiera jaiari, txupinazoagaz eta jaien amaierako ekitaldiagaz.



Sugarri fanfarrearen kalejira bat Goienkalean.

### Politikan

Markel Larruskain  
Narbaiza  
EH-Bildu



### Etikaz mintza gaitzen

Martxan da ikasturtea eta horrekin batera udal aurrekontuaren elaborazioaren aurre fasea. Joan den astelehenean honen inguruko formakuntza eskaini zigun udal teknikari batek zinegotziori. Zerbaki eta parametro artean murgildu ginen eta bazegoen behin baino gehiagotan egin zuen argipen bat.

Horrela zioen lezioak: “Datuak konparatu daitezke urtetik urtera, beti parametro berdina elkarrekin alderatuz. Parametro berdina; aurrekontuak aurrekontuekin, gastuak gastuekin... eta beti horrela”.

Horrela funtzionatzea kode deontologikoan omen dago eta teknikarien txostenek hori errespetatzen dutela azaldu zuen. Bukaeran broma txiki bat gehitu zuen: “Hau teknikarion betebeharra da, gero politikarion betebeharra da, gero politikarion betebeharra da, gero politikarion betebeharra da”. Hori entzun eta barre egin genuen guztiok, alde batek txiste tonuan esan zuelako, baina bestetik, normalizatuta dugulako. Ez naiz ni teknikarion kortse zalea baina ikaragarria da datuak errealitatea desitxuratu arte bihurtzeko joera.

Zinegotziok kargua hartu eta hilabetera ikusi genuen adibide bat. Portzentaia eskandalagarrietako alkatearen soldata igoera baten aurrean hamarnaka taula zabaldu ziren urrezko printzipio horri zeinek ostikada handiagoa eman. Saiatu ginen irizpide horren pedagogia egiten baina alperrik. Datu ezberdinen arteko txokolatetik ezin taxuzko ezer atera.

El Correok eta alderdi politiko batzuek gorotza zabaltzeko haizagailua martxan jarri duten hauteskunde aurre kanpaina honetan, ez ditzagun datuak nahastu eta hori egiten duenari deitu diezaiozun bere izenez.

### Durungaldea asteen

#### Iurretan diru bilketa ipini dute martxan Marokoko herritarrei laguntzeko

**IURRETA** | Durungaldeko Axura Komunitate Islamikoak eta Iurretako Al-Huda meskitak diru bilketa bat hasi dute Marokoko hegoaldeko lurrikarako biktimei laguntzeko. Baturiko diruagaz eraikuntzarako materiala, mantak eta sendagaiak erostea da helburua, besteak beste. Kontu korrante zenbaki hau ipini dute dohaintzak egiteko: ES20 9503 0460 9118021724

#### 60 bat lagun aritu ziren, joan zen asteburuan, Zumelegi erreka garbitzen

**ELORRIO** | Elorrio-Atxondo Baso Biziak Elkarteak antolatuta, 60 bat elorriar —46 nagusi eta 14 haur— Zumelegi erreka garbitzen aritu ziren joan zen asteburuan, Elorrioko Udalaren esanetan. Udalak eskerrak eman dizkie elorriar horiei, eta baita Elorrio-Atxondo Baso Biziak Elkarteari ere, deialdia antolatzeagaitik.



#### Uxue Zabala durangarrak plaza lortu du Asturiasko Goi Mailako Kontserbatorioan

**DURANGO** | Uxue Zabala Durango Erdi Mailako Kontserbatorio Profesionaleko zeharkako txirula ikaslea da eta datorren urterako plaza lortu du Asturiasko Goi Mailako Kontserbatorioan; Oviedon dago kontserbatorioa. “Albiste garrantzitsua da Bartolome Ertzilla Kontserbatorioarentzat: Goi Mailako Musika Zentroetan eskaintzen diren plazak oso urriak dira eta kompetentzia apartekoa da; beraz, aurkezten diren ikasleen maila oso altua da. Horregaitik, bertako ikasleak maila horietan aritzea oso lorpen garrantzitsua da irakasle talde osoarentzat”, azaldu dute eskolako iturriek.

**Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:**  
Bixente Kapanaga 9, - IURRETA • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia **DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO** Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOToren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).

**Smurfit Kappa**  
Central forestal

+55 urte  
EUSKADIKO  
PINUDIAK  
ZAIINTZEN

**Smurfit Kappa**  
Nervi3n

# BURUARI KLIK!



# DIFERENTZIAK










Topatu 20 diferentziak.





# SUDOKUA


Bete lauki zuriak beheko  
irudiak erabilita.

|   |   |   |   |
|---|---|---|---|
|   |   |   |   |
|   |   |   |  |
|  |   |  |  |
|  |  |   |  |



# LABIRINTOIA

Zein auto helduko da gasolindegira?












# ZEIN DA?





---

Zein da gurpil honen aztarna?



# ITZALAK

Zein da zein? Auto bakoitzari bere itzala dagokio.



# LEKUZ KANPO

Beheko irudietatik zeintzuk topatu daitezke logela batean?



# ZENBATU

Zenbat etxebizitza daude beheko irudian?  
Gai izango zara dauden katuak topatzeko?



# Durangaldeko azken albisteak jaso gura dituzu?

## Batu Anbotoko whatsapp taldera



**Bidali alta**  
**688 635 041**  
**telefono zenbakira**

\* Izan zaitez berriemaile ere.  
Bidali zure argazki eta bideoak



## Tooth

MUSIKA ABADIÑO :: Irailak 24

### 'Errautsetatik'

Tooth hirukote gernikarrak Errautsetatik hirugarren lan luzea kaleratu zuen udaberrian. Ordu-

tik, errepidean dabilta lana han eta hemen zuzenean aurkezten. Asteburu honetarako hitzordu

hirukoitza antolatu dute Tano katalanekin. Talde biek hartu-eman berezia dute, 2019an elkarregaz dozena bat emanaldi egin zituztenetik. Oraingoan, Beasainen eta Larrabetzun kon-

tzertuak eman eta gero (bietan Ezta Ilen zaldibartarrekin), Tooth eta Tano Abadiñoako Amaraun Arte Fabrikara datoz. Talde biek hardcore doinu trinkoak jorrazten dituzte, ñabardura desberdinekin.

Bestalde, urtea amaitu bitartean antolatu duen kontzertu sorta iragarri du oraintsu Amaraun Arte Fabrikak. Urrian Audience talde gernikarrak joko du kontzertua, hilaren 8an; azaroaren 19an, Sega Sound Killers gipuzkoarrek emango dute kontzertua; abenduaren 3an, Ibil Bedi nafarrek *Goldea* azken lana aurkeztuko dute. Kontzertu guztiak 13:30ean hasiko dira. Urtea amaitzeko, jaia egingo dute abenduaren 30ean.

## Irailaren 22an

### ABADIÑO karaokea

Karaoke lehiaketa, 19:00etan, Isiotu elkartearen lokalean.

### ABADIÑO erakusketa

Tailla erakusketa, 18:00etatik 20:00etara, Txanportan.

### BERRIZ antzerkia

'Double Bill' (Two Much Circus), 17:00etan, Olakuetan.

### DURANGO jaiak

Txupinazoa eta aureskua

Amabirjinari, 20:00etan, Goienkalean.

Poteoa Sugarri fanfarreagaz, 20:00etan.

Eirband taldea (80ko eta 90eko hamarkadako musika), 21:30ean.

### ELORRIO dantza

'Lasala 10 urte' ikuskizuna, 20:00etan, Arriola antzokian.

### ZALDIBAR bertsoak

Bertso afaria: Amets Arzallus eta Alaia Martin, 21:00etan, Goierrri auzoan.

### ZORNOTZA jaiak

Txupinazoa, 17:00etan, Ogenbarrena auzoan.

Briska txapelketa, 17:30ean.

Ping-pong eta igel txapelketak, 18:30ean.

Tortilla txapelketa, 19:00etan (aurkezpena, 20:30ean).

Zumb@ Belen + Dj Fardy, 19:00etan.

Dj Fardy, 21:30ean.

## Irailaren 23an

### DURANGO jaiak

Txorizo banaketa solidarioa Geu Be elkartearen eskutik, 13:00etan, Goienkalean.

Paella txapelketa, 13:00ean (aurkezpena, 15:00etan).

Dantza Bermuta Sugarri fanfarreagaz, 13:00etan.

Sugarri fanfarrea, 17:30ean.

Meza hildakoen omenez, 19:00etan, Santa Ana elizan.

DJ Ruben Costas eta Dreyky, 20:00etan.

### DURANGO dantza

'Migratzaileak' ikuskizuna (Aukeran), 19:00etan, San Agustin kulturgunean.

### DURANGO bisita gidatua

'Durango Zuri Beltzean', 10:30ean. Turismo Bulegoan eman daiteke izena: 946 033 938 / turismo@durango.eus

### ZORNOTZA musika

Kuttune taldea, 20:00etan, Etxanoko Andra Marian. Doako autobusa 19:30ean, Gudari kaletik.

### ZORNOTZA jaiak

Puzgarriak, 11:00etan, Ogenbarrena auzoan.

Gaztedi taldea, 12:30ean.

Kazolen entrega, 14:00etan.

Sari banaketa, 14:30ean.

Apar jaia, 16:00etan.

Mus txapelketarako izen ematea, 17:00etan.

Txistulariak, 18:30ean.

Ernesto, musika eta dantza

kubatarra, 19:00etan.

Pete Carpenter and the Mighty Pelicans, 20:30etan.

Los Primeros, 22:00etan.

Mugipanderoa, gauerdian.

## Irailaren 24an

### DURANGO jaiak

Haurrentzako animazioa, 12:30ean, Goienkalean.

Gilda txapelketa, 13:00ean.

Udal Banda, 13:30ean.

Trikipoteoa, 14:00etan.

Jubilatuen bazkaria, 14:30ean, Txanto tabernan.

Dardo txapelketa, 16:30ean, Kale Kantoi tabernan.

Igel txapelketa, 16:30ean, Rugby tabernan.

Haurrentzako jolasak eta ginkana, 16:30ean.

Mus txapelketa, 16:30ean, Arkupe tabernan.

Zumba solidarioa Durangaldeko Angelman

Elkarteari laguntzeko, 17:00etan.

Haurrentzako DJa

Markeliñeren eskutik, 19:00etan.

Txokolatada, 19:00etan, Anboto tabernan.

Trikitilariak, 20:00etan.

Txupinazoa eta jaien amaiera, 21:00etan.

### ELORRIO antzerkia

'Anbotoko Mari' (Logela Multimedia), 17:00etan, Arriola antzokian.

### ZORNOTZA azoka

Herriko emakume

sortzaileen azoka, 11:00etan, Besue Bertoko Emakume Sortzaileen Uztaren Etxeak antolatuta. Arraibiko plazan.

### ZORNOTZA musika

Melyus laukotea: Sofía Moya eta Alba Compte biolinagaz, Claudia Vidal biolagaz eta José Antonio Oliva biolontxeloagaz, 19:00etan, Garaitondoko San Isidro basilizian. Doako autobusa 18:30ean, Gudari kaletik.

### ZORNOTZA jaiak

Merkatu solidarioa, 11:00etatik 15:00etara, Ogenbarrena auzoan.

Txistulariak, 12:30etan.

Trikitixa, 13:00etan.

Hirugihar pintxoak, 13:30etan.

## Irailaren 26an

### IURRETA kafe tertulia

'Bakardade ikusiezina', 17:30ean, Ibarretxen. Erakusketa zabalik irailaren 29ra arte.

## Irailaren 28an

### ABADIÑO berbaldia

'Vietnamgo bidaia' (Hizlaria: Alex Cueto), 19:00etan, Isiotu elkartearen lokalean.

### ZORNOTZA jaiak

Txupinazoa, 19:00etan, San Migel Dudeako auzoan.

Triki pintxo poteoa, 19:30ean.

Zornotzako Gazteen

Abesbatza, 20:00etan.

# Zinema

## :: Durango ZUGAZA ZINEMA

### • La voz del sol

barikua 22: 18:30  
zapata 23: 18:30  
domeka 24: 18:00  
astelehena 25: 18:00  
martitza 26: 20:15

### • Operación Napoleón

barikua 22: 21:00  
zapata 23: 20:30  
domeka 24: 20:00  
astelehena 25: 20:15  
martitza 26: 18:00

### • Jeanne du Barry

barikua 22: 18:30 / 21:00  
zapata 23: 19:00 / 21:30  
domeka 24: 19:30  
astelehena 25: 18:00 / 20:15  
martitza 26: 18:00 / 20:15  
eguztina 27: 19:00

### • Vida perra

barikua 22: 18:30 / 21:00  
zapata 23: 17:10 / 19:00 / 21:30  
domeka 24: 17:00 / 19:30  
astelehena 25: 18:00 / 20:15  
martitza 26: 18:00 / 20:15  
eguztina 27: 19:00

### • Richard la cigüeña y la joya perdida

zapata 23: 17:10  
domeka 24: 17:00

### • Mapa

eguztina 27: 20:15

## :: Elorrio ARRIOLA ANTZOKIA

### • Campeonex

zapata 23: 20:00  
domeka 24: 20:00  
astelehena 25: 20:00

## :: Zornotza ZORNOTZA ARETOA

### • Las dos caras de la justicia

barikua 22: 20:00  
zapata 23: 20:00  
domeka 24: 20:00  
astelehena 25: 20:15

### • Rally road racers

zapata 23: 17:00  
domeka 24: 17:00

## Iurretako jaiak 2023

### Irailak 22, barikua

**17:00** Etxegoko irekieraren jaiak

**17:30** Pirritx, Porrotx eta Marimotots 'Urteak bete, abenturak bizi!' ikuskizuna plazan. Arratsaldean **Tortilla Txapelketa** kaskoan

**20:00** Tortillen aurkezpena Askondon

**22:00** EL PACTO ROCK BAND, Bruce Springsteen tributua Askondon

### Irailak 23, zapatua

**08:00** Mendi martxa

**18:00** Profesionalen pilota partiduak

DJ Paco Musika Askondon. DANTZATZEKO PREST

**20:00 – 21:00** Ume eta gazteentzat

**21:00 – 23:00** Helduentzat

**22:00 – 01:00** BELDUR BARIK GUNEA plazan 'EZ EZETZ DA – ERASO SEXISTARIK EZ!'

**22:00** Rock kontzertuak: AÑUBE, HOFE, DUPLA

### Irailak 24, domeka

**12:45** Bizkaiko Ingude Txapelketa frontoian

**17:00 – 19:00** Ume eta gazteentzako jolasak Iurretako plazan.

**18:00** Giza proba desafioa Harriti (Arratia) - Iurreta

### Irailak 28, eguna (San Migel bezpera)

**12:00** Jaien hasiera Montoitik. Ondoren, **kalejira** herrian zehar **ABURRECALLES txarangak eta BIZKAIKO GAITEROAK** alaituta

**14:00** Jubilatuen bazkaria Askondoko karpan. Jarraian, **Uribesalgo soinu-joleagaz erromeria**

**14:30** Gazte bazkaria plazan

**18:30** Ohiturazko Doniel Atxa jasotzea. Jarraian, **dantzarien azken entsegua**

**22:00** Erromeria ALTXA PORRU

### Irailak 29, barikua (San Migel eguna)

**11:00** Dantzari eta agintarien kalejira Montoitik plazara

**12:30** Dantza saioa

**16:00** Abentura ekintzak Etxegon

**18:30** Dantza saioa. Gorulari dantzaren 50. urteurrena

**20:00** Kantu kantari Egundo I taldeagaz plazan

**21:00** Mariatxiak. **Kalejira** kaskoan zehar eta **emanaldia** Askondon.

**22:00** Bertso saioa: Unai Iturriaga, Maialen Lujanbio, Amets Arzallus, Nerea Ibarzabal, Joanes Illarregi eta Miren Amuriza. Gai jartzailea: Miren Berriozabal

**24:00** OXABI erromeria. Ondoren, **PARY&TIZA DJa**

### Irailak 30, zapatua (mozorro eguna: Hamarkadak)

**11:30** Perkusio tailerra (And Bolo)

**12:30** Mozorro kalejira trikitilariak alaiturik

**14:30** Bazkari herrikoia Askondoko karpan. Bazkal ostean **Bingo musikatua**

**18:30** ZUTIK elektrotzaranga

**21:00 – 22:00** LUHARTZ erromeria

**22:00** Lekittoko deabruak. 'Soms diables deabruak gara' ikuskizuna

**24:00** LUHARTZ erromeria. Ondoren, **DJa**

### Urriak 1, domeka (Errosario eguna)

**10:00 – 14:00** XXIII. Nekazaritza eta Artisautza Azoka Olaburun

**11:00** Dantzari eta agintarien kalejira Montoitik plazara

**12:30** Dantza saioa. Ondoren, **Igel Txapelketa**

**17:00** Briska Txapelketa plazan. Saria: Arriaundi Egurrak emandako txapela

**18:00** Dantza ikuskizuna. Iurretako dantzariak eta talde gonbidatua

Ondoren, **jaietako errifin zozketa**

**20:00** Herri afaria

**20:30** Erromeria LORRATZ taldeagaz

**22:00** Jaien amaiera ohiturazko bertsoak kantatuta

Oharra: Euria eginez gero, Jai Batzordeak erabakiko du, ikuskizunaren arabera beti ere, Kepa Arroitauregi frontoira edo Maiztegi Herri Eskolako frontoira leku aldatzea edo bertan behera uztea.





## “Grabazioa dela-eta kontzertu proposamen askori ezetz esan behar izan diogu; ea aurrerago jotzeko aukera dugun”

Fito Skins bikoteak jendez leporaino beteriko Elorrioko gaztetxean aurkeztu zuen diskoa; Berrizko Lorentzo Records estudioetan grabatu dute, Aitor Ariñogaz

MUSIKA • ARITZ MALDONADO

Mario Cruz eta Txaber Méndez elorriarrek Fito Skins osatu zuten konfinamenduaren ondoren. Herriko lokalak itxita zeuden orduan eta "alternatiba" bat behar zuten gustuko zutena egiten jarraitzeko, musika egiten jarraitzeko. Bertsioak egiten hasi ziren, gitarra akustikoekin, eta gutxinaka abesti propioak idazten ere hasi ziren. Lehenengo kontzertua lagun baten urtegun festan jo zuten, traktore baten gainean; azken kontzertua 'Venganza&perdon' diskoaren aurkezpen kontzertua izan dute, Elorrioko gaztetxean, eta gonbidatuekin emandako kontzertuan aretoa jendez lepo bete zen.

'Venganza&Perdon' kaleratu duzue oraintsu. Pozik zaudete izaten ari den harreragaz?

Irailean kaleratu dugu diskoa, baina oraindik ez dugu plataforma digitalean ipini. Oraingoz, gure inguruko jendearengana baino ez da heldu, baina gu oso gustura gaude, askok esan digutelako originala eta landua dela. Eta guretzat horixe da garrantzitsua. Gu asebeteta geratu gara.

**Elorrioko gaztetxean aurkeztu zenuten diskoa. Pozik?**

Ez dugu uste gau hori ahaztuko dugunik. Eguraldiak lagundu ez arren, oso ondo irten zen dena. Gure asmoa kanpoan jotzea zen, eta Galazota eta Txerrikumeak taldeek barruan. Azkenean, barruan izan zen guztia, eta ordubeteko atzerapenagaz. Hala ere, oso ondo joan zen guztia, eta gonbidatuekin jo genuen kontzertua, lagun artean.

**Berrizko Lorentzo Recordsen grabatu duzue diskoa. Zelako prozesua izan da?**

Diskoaren grabazioa polita izan da, baina gogorra. Normalean, 4-5 kideko taldeetan, lagun bi lanean daudenean gainerakoek trankil egoteko denbora dute, haizea hartzeko; guk, bi izanda, ia ez genuen tarte librerik izan eta, alde horretatik, apur bat saturatuta amaitu genuen. Hori kenduta, prozesua erraza izan zen. Pentsaturikoa baino denbora gutxiago behar izan genuen eta Aitorregaz oso gustura egon ginen lanean. Pazientzia eta ezagutza handikoa da Aitor.

**“Gu oso gustura gaude, askok esan digutelako originala eta landua dela. Eta guretzat horixe da garrantzitsua”**

**Hainbat lagunek kolaboratu dute.**

Orbek baxu doinuak grabatu ditu hiru abestitan, Romerok kutxa beste hirutan, eta Idoiak pianoa *Garaitu nau* eta *Autobultzaketa* abestietan; honetan ahotsa ere grabatu du.

**Bertsio bi grabatu dituzue.**

Fiachrasen *Autobultzaketa* eta Subestimadosen *A las puertas del cielo* sartu ditugu diskoan. *Autobultzaketa* hasieratik jo izan dugun abestia da,

eta diskoan elegante geratu zitekeela uste genuen; Idoiaz berba egin genuen, berak ahotsa eta pianoa sartzeko, eta asko gustatu zaigu emaitza. Bestalde, *A las puertas del cielo* lagun baten gomendioz hasi ginen jotzen, eta gu ordekatzera pasatu zen segituan. Abesti horren oinarria gitarra akustiko bik osatzen dute, eta, horrela, ukitu desberdin bat ematea pentsatu genuen.

**Abesterakoan, gaztelaniaren, euskararen eta ingelesaren artean egiten duzue jauzi. Erosoena egiten zaizue?**

Ez da erosoena guretzat. Ingeleseaz *Come on* abestiko estribilloa baino ez daukagu, eta, egia esateko, ez dakigu zergaitik, horrela irten zelako. Gainerako abestiak euskaraz eta gaztelaniaz dira (gaztelaniaz gehitxoago). Horrela irten zaigulako da, hau da, gorputzak eskatzen digun moduan idatzi dugu abesti bakoitza. Alboratu edo aldatu gauden gauzak egon dira, jakina, baina ez hizkuntza baten edo bestean egon delako eta hori aldatzeko.

**Abesti batzuk bateriaz eta baxuagaz grabatu dituzue; kutxa eta pianoa ere sartu dituzue. Probatzearren ala abestiak eskatzen zizuelako? Aurrerantzean formatu berdinean jarraitzea aurreikusten duzue ala ez duzue bazterten taldekide gehiago batzea proiektura?**

Abestiak eskatu diguna egin dugu beti; batzuetan hobeto joan da bateriaz kutxa baino, eta alderantziz. Argi dago pianoak beste indar bat ematen diola abesti bakoitzari, eta

horren arabera ere sartu dugu. Eta baxuak beti laguntzen du abestia osatu eta gorputza ematen.

Formatuarena hasieratik planteatu dugun kontu bat da. Estudiora sartu aurretik, bagenekien gero kontzertuetan soinu hori ateratzea ez zela erraza izango, baina disko landu bat kaleratzea gura genuenez, aurrera jarraitzea erabaki

**“Kontzertu bi gehiago ditugu guztiz itxita. Hurrengo urriaren 27an izango da, Gasteizko Ttipia tabernan”**

genuen. Orain, formatu akustikoan saldu behar dugu geure burua, hau da, pianorik, kutxarik eta bateriarik barik. Baina gu dena zabalik gaude, eta ez dakigu aurrerantzean aldaketarik egongo den... Batek daki!

**Baduzue beste kontzerturik lotuta?**

Kontzertu bi gehiago ditugu guztiz itxita. Hurrengo urriaren 27an izango da, Gasteizko Ttipia tabernan. Pena txiki bat dugu: diskoa uda ostean kaleratu dugu, eta grabazioa dela-eta udan egin dizkiguten proposamenak ezin izan ditugu onartu. Hala ere, jende honi guztuari diskoa gustatzea espero dugu, eta aurrerantzean beste hainbat lekutan ere jo ahal izatea.





Entsegu bateko argazki bat. @ETANOWSKY

## Lasalak dantzan egingo du Elorrion, hamar urteko ibilbidea ospatzeko

Barikuan izango da Lasalaren 10. urteurreneko emanaldia, hilak 22, 20:00etan, Arriolan

### DANTZA • A.M.

Ez da erraza hamarkada batez dantza talde bati eustea, eta horregaitik erabaki du Judith Argomaniz donostiarrak berak zuzentzen duen Lasala dantza konpainiaren hamargarren urteurrena taula gainean ospatzea, ikuskizun berezi batez; urteotan egindako piezarik esanguratsuenen bilduma proposatzen du Arriolan gozatu ahal izango den emanaldiak. Ibilbide osoan zehar, konpainiak hizkuntza propioa garatu du eta egungo estetika, zinemagintza,

argazkigintza eta diseinuetara egokitzen dakiela ere erakutsi du. Ibilbide honetan, konpainiak dozena bat ikuskizun sortu ditu; azkena, azaroaren 5ean Donostiako Victoria Eugenia estreinatuko duten *Shine*. "Sara Ahmedek garai turbokapitalista honetarako planteatzen duen zoriontasun promesetatik abiatuta eraiki da lan hau", azaldu dute konpainiatik.

### Estreina etxean

Bestalde, Logela multimediak ikuskizun berria estreinatuko

du domekan Arriolan: *Anbotoko Mari*. Gari da antzezlan multimedia honetako protagonista; lagunekin haserretu, Anbotora igo, Mariren haitzulora sartu eta bertan dagoen harri magiko bat ostuko du; Mari bera atzetik joango zaio, eta bidaia zoro bat hasiko dute horrela, Tartaloren, iratxoaren eta beste jeinu batzuen parte hartzeagaz; Eneritz Garcia, Unai Eleizalde eta Ander Garaizabal dira aktoreak. Imanol Garaizabalek zuzendu du antzezlan multimedia. Emanaldia 17:00etan hasiko da.

## Jaime Vicarioren bizitza batzen duen erakusketa, ikusgai

Azaroaren 12ra arte dago ikusgai. Atzo inaguratu zuten artistaren lagunek eta baita Miren Agur Meabe idazleak ere

### MARGOLARITZA • A.M.

Jaime Vicarioren lanak batzen dituen 'Bizitza baten islada: itsasoa, mendia eta gorputza' erakusketak egunean zabaldu zituen ateak, Durangoko Arte eta Historia museoan. "Baretasuna. Edertasuna. Dinamismoa. Identitatea. Bizipoza. Jaimeren pinturari isuritako tantetako batzuk mareak gora egin bitartean", nabarmendu du Miren Agur Meabe idazleak; bereak dira katalogoko berbak. Vicario 2019an hil zen, gaixotasun baten ondorioz. Mu-

seoan, Javier Santurtun artista barakaldarraren erakusketa egon da ikusgai aurretik, irailaren 3ra arte. Mila pertsona inguruk bisitatu dute museo bizkaitarraren erakusketa ikusteko, eta museoak balorazio positiboa egin du erakusketak izandako harreraz.

### Lanak

Bestalde, museoan berrizte lanak egin dituzte oraintsu. Durangoko Udalaren esanetan, 2.700 euro inbertitu dituzte lanetan.



Udal ordezkariak eta Jaime Vicarioren lagunak erakusketaren aurkezpenean.

## Gai librean

### Haize-mahukak eta burdinazko ezkutak

Egungoentzako lainoak tamaina basan azaldu dira beste behin AP8an.

Lanera bidean, alboko kotxeko gidariarekin begirada gurutzatu dut ispilua bailitzan. Goizegi da aurpegiko muskulu batzuk mugitzeko, baina bekozko zimur krudelarekin harrapatu dugu elkar.

Errepide bazterreko haize-mahuka gaur ere tente dago bidearekin perpendikular, oihalaren kolore zuri gorriak harropuztuta. Ematen du, aurtan jada pasa ditugun egun denak sartu zaizkiola zulo handietatik eta bata bestaren jarraian iritetan ari direla zulo txikitik. Ezin izenda daitezkeen gaitz indibidualak tirokatzen bezala, dinbi-danba. Gidarien bekokietara, dinbi-danba.



Ainhoa Olaso Sopelana  
Behargina

**Goizegi da aurpegiko muskulu batzuk mugitzeko, baina bekozko zimur krudelarekin harrapatu dugu elkar**

**Ezin izenda daitezkeen gaitz indibidualak tirokatzen bezala, dinbi-danba. Gidarien bekokietara, dinbi-danba**

Irrati esatariak narratzaile papera hartu du eta etorkizuna orainaldi bihurtzen hasi da orduan. Grebak, Zinemaldia, ofizialtzekak, Alabamako musika orkestra, lan heriotzak, hau-

teskundeak eta greba deialdi gehiago. Gauza bakoitzak bere denbora behar du, baina, egia esan, albistegiak ez ziren datorren guztiaren matizak jasotzeko asmatu.

Eta irratia itzalita lan egin beharreko ordu gogaikarrietan sartzen da eguna (nahiz eta norberak maitasunaren kontra doazen notiziekin piztuta jarraitu: Galder eta Aitor gazte arabarrek espetxeratze agindua jaso dute).

Etzetik irtetean ez dago asmatzerik, sandaliak edo harrietatik babesteko burdinazko ezkutak beharko ditugun. Mundua gaixorik dagoela diote eta gertatzen den guztia laburtzeko balio dit modu makur batean. Baina goizeko lainoen atzean sakona da zerua eta datorren aukera gama proiektatzeko tartea zabaltzen da noizean behin. Haizeak indartsu jo eta txingorra gototik egin arren.

**MENDI LASTERKETA • JOSEBA DERTEANO**  
Durangaldea mendi bide eta ton-  
tor ikusgarritz inguratuta dago  
eta aukera handia eskaintzen du  
mendi lasterketak antolatzeko. Es-  
kualdeko proben sorta zabala da,  
Anboto ingurutik doan Sorginen  
Lasterketatik hasi eta Aramotz  
mendilerroa zeharkatzen duen  
izen bereko lasterketaraino. Bada,  
zapatu honetatik aurrera proba  
berri bat gehituko zaio zerrenda  
zabal horri: Erdella Mendizale  
Taldeak Elorrio inguruan an-  
tolatu duen Aldapegora mendi  
lasterketa.

Herriko gazte batzuek Erde-  
llari egindako proposamen bat  
du sorburu lasterketa berriak.  
Mendi taldekoak prest agertu  
ziren lasterketa antolatzeko, beti  
ere gazteak eurak antolakuntzan  
inplikatzeko baziren. Harrezkero,  
batzuk eta besteak buru-belarri  
lanean aritu dira zapatu honetara  
begira.

**Ibilbidea**

Lasterketa 09:30ean hasiko da,  
Elorrioko plazan. 26 kilometro-  
ko ibilbidean —1.700 metroko  
desnibel positiboa— Elorrio ingu-  
ruko tontorrik esanguratsuenak  
igaroko dituzte. Memaia (675  
metro) izango da igaroko duten  
lehenengo mendia, bosgarren ki-  
lometroan. Hiru kilometro geroa-  
go, Besaideko monumentuaren  
ondotik pasatu eta Udalatxerako  
bidea hartuko dute. Gero, han-  
dik Kanpazarrera jaitsiko dira  
korrikalariak. Intxorta izango da  
hurrengo tontorra (743 metro);

# Elorrioren Aldapegora mendi lasterketa berria egingo dute zapatuan, inguruko mendietatik

26 kilometroko ibilbidean zehar Memaia, Intxorta eta Besaide tontorretatik eta Udalatx mendilerrotik igaroko dira



Aldapegora lasterketa Udalatx menditik igaroko da. **ERDELLA**

handik Aldapera bajatu, San Juan  
ermitaren ondotik eta Zenita  
aizotik igaro eta plazan helmuga-  
ratuko dira. Bidean lau anoa gune  
egongo dira: Besaiden, Kanpaza-  
rren, Intxortan eta Aldapen. 300

bat korrikalarik parte hartuko  
dute. Lasterketa orokorrak gaine-  
ra, beste sari berezi bat ere egongo  
da. Korrikalariak Udalatx mendi  
magaletik tontorreraino behar  
duten denbora neurtuko dute, eta

arinen igotzen dutenentzat saria  
egongo da. Aldapegora Bizkaiko  
Mendi Federazioko trail ligaren  
barruan dago. Liga 25 lasterketak  
osatzen dute eta Elorrioko egu-  
tegiko hamahirugarrena da. Egu-

tegi honen barruan daude Anboto  
Kilometro Bertikala (urriak 7) eta  
Aramotz Mendi Lasterketa (urriak  
8) ere.

**Domekan, mendi martxak**

Zapatua ez ezik domeka ere men-  
dizaleei zuzenduta egongo da  
Elorrioren. Kasu honetan, mendi  
martxa bi antolatu dituzte: 32  
kilometroko martxa luzea eta 15  
kilometroko laburragoa. Parte  
hartzea doakoa da bietan, eta izen  
ematea [aldapegora.com](http://aldapegora.com) webgunean  
egin daiteke, gaurko 17:00ak arte.

Martxa luzea 07:30ean hasiko  
da, plazan. Ibilbidean Memaia,  
Udalatx, Kañueta, Intxorta, Erde-  
lla eta Berriozabaleta igaroko di-  
tuzte eta 1.825 metroko desnibel  
positiboa gaindituko dute. Martxa  
laburra 09:00etan hasiko da. 600  
metroko desnibel positiboa du eta  
Erdella mendia izango da zailta-  
sun nagusia ibilbidean.

Beraz, asteburuan mendia  
izango da protagonista Elorrioren,  
eta hitzordu horien harira he-  
rriari jai-giroa sortzea itxaroten  
dute Erdellakoek. "Giro paregabea  
sortuko da eta familiakoekin as-  
teburu ederra pasatzeko aukera  
ezin hobea izango da", adierazi du  
mendizale taldeko kidea den Edu  
de la Cruzek.

## Durangoko duatloi herrikoian emakumeen parte hartzea sustatzeko ekimena, zapatuan

Parte hartzaileek Tabirako ermitaren ondoan hasita ibilbide  
osoa bizikletan egingo dutela azaldu dute antolatzaileek



lazko duatloi herrikoiko irudia. **MUGARRAT**

**DUATLOIA • J.D.**

Mugarra Triatloi Taldeak Duran-  
goko duatloi herrikoia antolatu  
du urriaren 7ko goizerako. Iazko  
aldian atera zuten ondorioetariko  
bat da emakume gutxiak parte har-  
tu zuela, eta aurten buelta eman  
gura diote egoera horri. Parte har-  
tze baxuaren arrazoia duatloiaren  
ustezko gogortasunagaitik dela  
uste dute antolatzaileek, berez ez  
denean, euren esanetan, hain exi-  
jentea. "Ez da lasterketa gogorra,  
denek egiteko modukoa da. Ez da  
saikapenik egoten", adierazi du  
Mugarra Triatloi Taldeko Serafin  
Bereziartua "Txela'-k.

Horiek horrela, beldurrak ken-  
tzeko, honako ekimena antolatu  
dute. Emakumeei zuzenduta,  
deialdi bat egin dute zapatu hone-  
tarako. 12:00etan izango da, Tabira  
ermitaren ondoan. Handik hasita,  
duatloiko ibilbide osoa egingo dute  
bizikletan, gogorra ez dela erakus-  
teko. Bizikleta eramateko eskatu  
dute. Emakumeei zuzenduriko  
ekimena da batez ere, baina gura  
duten gizonak ere parte hartu de-  
zaketela zehaztu dute.

## Ivan Sáez de Cortazar saskibaloia jokalaria hil da, trafiko istripuan

Tabirako klubeko lehenengo taldeko jokalaria zen.  
Martitzenean gertatu zen ezbeharra, Amurrion



**FUTBOLA • J.D.**

Martitzenean kamioi baten eta  
auto baten arteko trafiko istripu  
larria gertatu zen Amurrion. Is-  
tripu horren ondorioz, Ivan Sáez  
de Cortazar amurriarra hil zen,  
Tabirako lehenengo taldeko sas-  
kibaloia jokalaria. Klubak eman du  
heriotzaren berri bere sare sozia-  
letan, eta ezbeharraren aurrean  
"atsekabe sakona" adierazi du. "Se-  
kula ez ditugu ahaztuko zure la-  
nerako ahalmena, zure irribarrea,  
zure partiduen aurreko erritualak  
nahiz Durangotik Amurrionako  
zure bidaiak", gehitu dute.

Sáez de Cortazar talde nagusi-  
ko jokalaria zen eta bere ibilbi-  
dean hainbat lorpen ospatzeko  
aukera izan zuen: Lehenengo  
Nazional Mailako Kopa eta EBA  
mailarako igoera orain urte bi,  
Donostiako Illunben.

# Durango Neskak Rugby Txapelketa, liga hasi aurreko azken hitzordua

Zapatuan bost talde batuko dira, Arripausetan, txapelketaren laugarren aldia jokatzeko



DRTko jokalariek eta arduradunak eta Durangoko Udaleko ordezkari bat DRTren egoitzaren aurrean, txapelketaren aurkezpenean.

## ERRUGBIA • JOSEBA DERTEANO

Durango Rugby Taldeak antolatutako Durango Neskak Rugby Txapelketa laugarren aldia egingo du zapatu honetan. 2017an sortu zuten txapelketa, urte birik behin egiteko asmoagaz, baina iaz harrera ona izan zuela ikusita, aurten ere antolatzea animatu dira eta aurrerantzean urteroko ekimen bihurtu gura dute. Sarriago izatea nesken taldearen "sendotasunaren" erakusle dela uste du Ane Martínez taldeko kapitainak. "Guretzat plazera da txapelketa hau jokatzeko", gehitu du. Txapelketa garrantzitsua da,

## DRTk 2017ko aldia irabazi zuen. Hurrengo biak La Unica eta Bera Bera taldeentzat izan dira

prestaketaren ikuspuntutik ere. Izan ere, hurrengo asteburuan ligak hasiko dituzte eta Durango-koa izango da azkenengo probak egiteko aukera.

Aurtengo aldiaren bost talde parte hartuko dute: Durango Rugby Taldeak, Universitario Bilbaok, Gasteizko Gaztedik, Sarako Izarrak eta Neskariansek. Azken hori lehenengo lau taldeetako

jokalariek osatuko dute. "Laguntasuna, elkar ezagutza eta, orokorrean, errugbiaren balioak sustatzea da talde horren helburua", adierazi du DRTko Aratz Gallastegik ekimenaren aurkezpenean. Lehenengo partidua 14:30ean hasiko da, eta finala 19:00 inguruan jokatu dute, Arripausetako errugbi zelaian.

DRTk badaki etxeko txapelketa irabaztea zer den; 2017an lortu zuen, lehenengo aldiaren ondoren, 2019koa eta 2022koa, Iruñeko La Unicak eta Donostiako Bera Berak irabazi zituzten, hurrenez hurren.

# Gontzal Murgoitio Espainiako txapeldun kilometro bertikalean

Sorginen Lasterketan egurra eman eta asteburu bira, kilometro bertikalen Espainiako txapelketa irabazi du



Gontzal Murgoitio joan zen asteburuko podiumean.

## MENDI LASTERKETA • J.D.

Gontzal Murgoitio (Elorrio, 2001) mendi lasterketan Espainiako Kopa irabazi zuen iaz. Aurten ezin izan da modalitate horretara aurkeztu, lesio baten ondorioz. Behin errekueratuta, jokatzeko zegoen azken txapelketa parte hartzea erabaki du, kilometro bertikalenean, eta kasu honetan ere txapeldun geratu da, promesen mailan.

Lasterketa joan zen domekan lehiatu zen, Villanuan (Aragoi). Bazekien sasoiaren zegoela eta aurrean egoteko aukera ikusten zuten. Horregaitik ez zen estutu aurkari batzuk ziztuz biziaren irten

zirenean eta ihes egin zutenean.

"Neure erritmoa hartu nuen eta ondo neurtu nuen indarra", adierazi du. Estrategia ezin hobeto irten zitzaion eta bigarren kilometrorako lasterketa buruan zen.

Zapatuan Elorrioko Aldapegora lasterketa berrian parte hartuko du. "Herrian lasterketa bat izatea berezia da eta han egon gura dut", adierazi du. Horren ondoren, urriaren 7an, Gironako (Katalunia) Olla de Nuria proban arituko da eta Golden Trail World Series-eko finalera sailkatzea izango du helburu. Azken proba hori Italian izango da, urriaren 22an.

## Jokaldia

### Ezustearen zain

1983. urtean Barricada taldeak *Esta es una noche de Rock and Roll* diskoa argitaratu zuen, eta 40 urte pasa diren arren El Drogasek egindako bira zoragarriak askoren ahotan jarri ditu berriz ere sasoiko abesti ugari. Errugbi zaleok Rock and Rollaz gozatzeko aukera dugu irailaren 8tik urriaren 28ra bitartean. Zergatik? Munduko Errugbi Kopa martxan delako, Frantzia jokatzeko ari dena.

Aditu askoren ustez, hiru talde dira faboritoen artean. Alde batetik, Frantzia. Anfritroia izateaz gain, talde sendoa eta goi mailako jokalariek ugari dituelako, besteak beste Dupont. Talde berean ariko den Maxime Luku izango da parte hartuko duen euskal jokalaririk bakarra.

Bigarren faborito nagusia Irlanda da. Hiru bat urte daramatzate irlandar



Gotzon Gomez Barrenetxea  
Errugbia

### Hasiera honetan ezusteak ere izan dira; agian deigarriena Fijik eman zuena Australia mendean hartuta

### Ezkutuan daukagu Zeelanda Berria. Lehen aldiz porrotarekin hasi du txapelketa, baina jokalariek itzelak ditu

rrek goi mailako jokoa erakutsiz, talde sendoa osatu dute eskarmentu handiko jokalariekin. Hasierako bi partidak aise irabazi dituzte, baina beraien benetako maila zein den egiaztatzeko aurkari gogorra izango dute larunbat honetan, Hegoafrika hain zuzen ere, adituen ustez hirugarren faborito nagusia. Hego

hemisferiokoak indartsu daude, azken prestaketa partidaren Zeelanda Berria ondo garaitu ondoren.

Hasiera honetan ezusteak ere izan dira, agian deigarriena Fijik eman zuen Australia mendean hartuta, baina Galesen aurkako norgehiagokan azken segundora arte irabazteko puri-purian egon ziren. Ezkutuan daukagu Zeelanda Berria. Lehen aldiz porrotarekin hasi dute Munduko Txapelketa, baina nire usteetan jokalariek itzelak ditu. Beraz, adi egon beharko dute faborito nagusiek; nire usteetan ezustekoa eman eta Webb Ellis Cup laugarren aldiz eskuratu dezakete.

Argi dago, *rock and roll* arratsalde ugari ditugu aurretik. Urriaren 28an ikusiko dugu txapela nork jartzen duen, eta nire iragarpenak zuzenak diren. Bitartean, Queen taldeak zioen bezala, *Show Must Go On*. Gozatu ikuskizunaz!



Joan zen domekan, irailak 17, Anbotokideek Mañariko Angurreta Harrobia Arte Espazioa bisitatzeko aukera izan zuten. ANBOTOk Gerediaga elkarteagaz elkarlanean antolatu zuen bisita gidatua 22 lagun batu ziren domekako goiz eguzkitsuan. Víctor Arrizabalaga mañariar eskultorea izan zen bisitaren arduraduna, eta harrobiko ibilbidean zehar Tadanori Yamaguchi artista eta eskultore japoniarraren 'Denboraren Aztarna' instalazioaren garapen prozesua eta nondik norakoak azaldu zituen, besteak beste.

Hiru urtez egongo da ikusgai japoniarraren lana Mañariko harrobian, Víctor Arrizabalagaren beste lan batzuekin batera. Irailetik aurrera, aurrez hitzordua hartu beharko da espazioa bisitatu ahal izateko.

# Angurreta Harrobia Arte Espaziora bisita gidatua

Argazkiak: AINHOA IRAOLA





Ez baduzu hanka  
sartu nahi,  
sartu zure iragarkia  
IragarkiLaburrak.eus  
atarian

Hemen  
eta online 

## Botikak

**BARIKUA, 22** · 09:00-09:00

CAMPILLO,  
MONTEVIDEO ETORB. 24 - DURANGO

GOIRIA,  
SABINO ARANA 6 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ,  
URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

IRUARRIZAGA,  
SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA

SARASKETA,  
LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

**ZAPATUA, 23** · 09:00-09:00

NAVARRO,  
ARTEKALEA 6 - DURANGO

MELERO,  
SAN PEDRO 31 - ZORNOTZA

09:00-13:30

ETXEBARRIA,  
MONTEVIDEO ETORB. 2. - DURANGO

CAMPILLO,  
MONTEVIDEO ETORB. 24 - DURANGO

SARRIA,  
SASIKOA 17 - DURANGO

DE DIEGO,  
INTXAURRONGO 22. - DURANGO

BALENCIAGA,  
EZKURDI PLAZA 8 - DURANGO

GAZTELUMENDI,  
J.A. ABASOLO 2 - DURANGO

BAZAN,  
URIBARRI 5 - DURANGO

LARRAÑAGA-BALENTZIAGA,  
BERRIO-OTXOA 6 - ELORRIO

FARMAZIA MATIENA,  
TRAÑABARREN 15. - ABADIÑO

GUTIERREZ,  
TXIKI OTAEGI 3 - ZORNOTZA

IRUARRIZAGA,  
SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA

RUIZ,  
EL ALTO-BIDE ZAHAR 14 - ZORNOTZA

GOIRIA,  
SABINO ARANA 6 - ZORNOTZA

09:00-14:00

IRIGOIEN,  
BIXENTE KAPANAGA 3 - IURRETA

09:00-22:00

SANCHEZ,  
URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

SARASKETA,  
LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

**DOMEKA, 24** · 09:00-09:00

ETXEBARRIA,  
MONTEVIDEO ETORB. 2. - DURANGO

MELERO,  
SAN PEDRO 31 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SARASKETA,  
LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

**ASTELEHENA, 25** · 09:00-09:00

GAZTELUMENDI, J.A.  
ABASOLO 2 - DURANGO

MELERO,  
SAN PEDRO 31 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ,  
URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

IRUARRIZAGA,  
SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA

SARASKETA,  
LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

**MARTITZENA, 26** · 09:00-09:00

DE DIEGO,  
INTXAURRONGO 22. - DURANGO

MELERO,  
SAN PEDRO 31 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ,  
URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

IRUARRIZAGA,  
SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA

SARASKETA,  
LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

**EGUAZTENA, 27** 09:00-09:00

SAGASTIZABAL,  
ASKATASUN ETORB. 19 - DURANGO

MELERO,  
SAN PEDRO 31 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ,  
URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

SARASKETA,  
LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

IRUARRIZAGA,  
SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA

**EGUENA, 28** · 09:00-09:00

MUGICA,  
ANDRA MARIA 9 - DURANGO

MELERO,  
SAN PEDRO 31 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ,  
URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

IRUARRIZAGA,  
SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA

SARASKETA,  
LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

## Zorion Agurrak

ZORIONAK@ANBOTO.ORG · EGUAZTENeko 14:00AK ARTEKO EPEA



Zorionak  
guztioi!

### GOZATU GOZATEGIA

Hamabostean behin jasotako zorion-agurren artean **tarta bat zotz egingo dugu.** Zozketan parte hartzeko bidali kontaturako datuak zorion-agurrekin batera.

Ermodo, 11 DURANGO  
Tel.: 946 201 663  
661 40 14 00  
gozatudurango@gmail.com  
f Gozatu Gozategia  
@ gozaturgozategia



Irailaren 8an **Anastasiok** eta **Lourdese** 50 urte egin dabez elkarrekin ezkontute. Zorionak zuen familia guztien partetik. Holan segitu. Mosu handi bana.



Zorionak, **Lur**. Ondo baino hobeto pasau urtegun eta San Migelak, zuk bai jakin noz jai! Mosu potolo bat etxeko danon partez!



Zorionak, gure futbolista! Aupa, **Jon!** Egun ederra pasa eizu familiakin eta lagunekin futbolen jolasten. Jarraitu zaren mutiko jatorra izaten. Mosu asko Naian partez eta Arrianditik.

## Eguraldia

ZAPATUA ↓ 12° / 21° ☁

ASTELEHENA ↓ 13° / 28° ☀

EGUAZTENA ↓ 15° / 24° ☁

DOMEKA ↓ 10° / 28° ☀

MARTITZENA ↓ 13° / 25° ☁

EGUENA ↓ 15° / 27° ☁

## BAKARDADE IKUSEZINA

17:30-19:00

IBARRETXE KULTUR ETXEA

**26** IRAILA

Kafe tertulia  
Café tertulia

Bakardadeari buruzko entzuteko espazioa.  
Jar diezaigun ahotsa bakardadeari.


Iurreta bbe



WWW.ARBEL.EUS - 656789589  
ERROTABARRI 1 - ARAMAIO



BASERRIRAKO,  
ANIMALIENTZAKO  
ETA ORTURAKO  
BEHAR DUZUN  
GUZTIA



# "Umorista izatea mundua ikusteko era bat da lanbidea baino gehiago"

'Aupa hi!' saioa amaituta, Julen Axpek zuzeneko emanaldiekin jarraitzen du. Azaroan Madrilera doa *Furgonologo* ikuskizun komikoagaz, baina egunotan Otxandion dago



**Julen Axpe Ajuria**

Umorista

OTXANDIO | 1995

**OTXANDIO** • AITZIBER BASAURI

Bartzelona eta Otxandio artean bizi da Julen Axpe. Futbolari izatea amesten zuen, baina bizitzak umorea egitera eramanean du. Zuzeneko emanaldietan eroso sentitzen da eta horri utsi gura dio. Gehienez hile bi egiten ditu herritik urrun. "Sustraiak elikatu behar dira adarrak hazteko", dio.

**Etxea eta lantokia duzu furgoneta. Ez da espazio txikia biak bateratzeko?**

Bai, baina ondo optimizatuta dago (barrez). Gutxigaz bizitzea lagungarria dela ikasi dut.

**Zelan sortu zitzaizun furgoneta hartu eta bertatik umorea egiteko ideia?**

Furgoneta osabarena zen eta kentzea erabaki zuenean niri eman zidan; umetan asko bidaiatu nuen beragaz. Ordurako egonda nengoen Bartzelonan *stand up*-ean lehenengo saioak egiten, eta hori gura nuela erabakita furgoneta hartu eta hara joan nintzen bizitzera. Furgoneta bidaiatzea eta komedia egitea, pasio biak batuz jaio zen *Furgonologo*. Furgoneta bizipenekin esketxak egiten eta sareetan zabaltzen hasi nintzen.

**Zelan moldatu zara furgonetan?**

Fase desberdinak bizi izan ditut. Egunak aurrera joan ahala, hasierako beldurra eta segurtasun eza desagertuz joan ziren. Esperientzia aberasgarria izan da.

**Orain trantsizio etapa bat bizi dut. Lau urte eman ditut furgonetan bizitzen eta sortzen**

rako beldurra eta segurtasun eza desagertuz joan ziren. Esperientzia aberasgarria izan da.

**Orain Otxandion zaude.**

Bai, trantsizio etapa bat bizi dut. Lau urte eman ditut furgonetan bizitzen eta sortzen. Oso prozesu kontzienteza izan da, gainera. Introspektzio handia egin dut, eta artista eta pertsona lez asko hazi naiz. Bizitza pertsonala eta artistikoa eskutik joan dira: lehenengoak behar zuen guztia eman dio bigarrenari. Hori amaituta, beste fase batean nago. Momentu pertsonal berri bat bizi dut, gainera. Beraz, nire gorputzari zer behar duen entzun gura diot. Sortzailea naiz, hala sentitzen dut. Eta sortzaile hori elikatzeke, bizitzari begiratu behar diot.

**Furgoneta aparkatu duzu, orduan?**

Etxean eta furgonetan, erdibituta bizi naiz. Herrian egonda, amamarenean bazkaltzen dut, amarenean afaldu, aitarenean dutxatu eta emanaldi bat dudanean furgonetan lo egiten dut.

**Furgonetan bizitzeak abantailak ala desabantailak ditu gehiago?**

Ez naiz Van Life-aren predikatzaila. Bakoitzak ikusi behar du zer behar duen pertsona lez hazteko. Hori behar izan nuen nik. Baina ez dut nire marka furgoneta bati lotuta ikusten. Sentitzen dudana egingo dut; furgoneta batean izan liteke, zein ez.

**Sare sozialak bozgorailu ezin hobea izan dituzu. 69.000 jarraitzailetik gora dituzu Instagramen.**

Gaur egun, komiko edo artiston curriculum da. Egindako lana erakusteko askatasuna ematen dute eta emanaldi asko sortu zaizkit horrela. Gainera, polita da jendeagaz hartu-eman zuzen hori izatea.

**Futbolari izatea amesten zenuen. Pentsatzen zenuen umorista izatea?**

Beti diot futboleko porrot eginda sartu nintzela umoregintzan. Futbolari izatea nuen amets, bai. Dena dela, umorista izatea mundua ikusteko era bat da lanbidea baino gehiago. Nire bizipen guztiek elikatu dute orain naizena.

**Nora joango zinateke furgonetagaz?** Leku polit asko daude. Baina bidaiari oinarri artistiko bat ikusi behar diet. Maldizioa ere bada, neurri batean. Oporretarako, gura dut hotel bat hartu (barrez).

## Lau-hortza

Bixente Aizpurua Eguren  
Irakaslea/Jubilatua



**Kalekumeak**

Gure inguruko baserriak indarra galtzen ari dira, baserriar asko jubilatuta dira edo laster jubilatzeke daude eta ez da ikusten erreleborik. Horrez gain bere lana ez dago egoki baloratuta, produkzioa mantentzeko kostu handiak dituzte eta etekin txikia.

Hori gutxi balitz lurrik onenak industrialdeak edo errepi-deak egiteko hartu dituzte.

Arazo hauek nahikoak ez balira kalekumeena gehitu zaie. Kaleko burrundararik ihesi baserri inguruetara etorri dira eta bertara egokitu beharrean beraien bizimodua inposatu nahi dute. Hemen doazkizue adibide batzuk:

Beraien lehen lana jabegoa- inguru guztia harreresiz inguratzen dute eta alarma jarri.

Inguruan behiak, ardiak edo behorak badabilta laster kexa orrua edo kanpai-hotsak loa eragozten dielako.

Artoa ernetan hasten denean eta belak landarea ez ateratzeko tiroa jarriz gero, nahiz eta legala izan eta udaltzainak jakinean egon, denuntzia.

Txakurrak lotuta erabili beharrean baserrietako larretan askatzen dituzte ganadua izutzen edo belarra zapaltzen, eta zerbait esanez gero harro jarri eta parkamena eskatu beharrean erantzun txarrak jaso.

Zimaurra landetan ongarririk ez zabaltzean kexa usain txarra duelako.

Eta horrela luze jarrai dezaket, baina kalekume hauek argi izan behar dute baserriak hor egon direla mendez mendez eta bi aukera dituztela: edo egokitzen dira toki berrira edo bestela berriz kalera buelta daitezela.

Zain ditzagun gure baserriak eta gure baserriarrak.

**SAN ROKE BARRIA DURANGO**

SALMENTA BULEGOA Astxiki kalea 1, Durango

Ludoteka

Gimnasioa

**225.000€-tik aurrera+BEZ**

Udazkenean obra hasiera

**sukia** 946 46 20 41  
Zure etxean zaude. Estás en tu casa [www.sukia.com](http://www.sukia.com)

**KALERATZE prezio bereziak**